

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

01/2025 kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onartzea

Bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 34.3 eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin, eta inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez Aguraingo Udalaren 01/2025 kreditu gehigarria ematearen espedienteari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, behin betiko onetsita geratzen da, honela:

KAPITULUA	IZENA	ZENBATEKOA
6	Langarikarako bidean lonja erostea	75.000,00 €
6	Langarikarako bidean lonja erostea	15.300,00 €
6	Zuberoa kaleko lokalak eguneko arretarako landa-zentrorako egokitzea	148.000,00 €
6	Kiroldegia eraberritzea eta frontoi berria eraikitzea	104.000,00 €
6	Kiroldegirako altzariak eta ekipamendua	131.948,00 €
Kreditu gehigarria, guztira		474.248,00 €

Espediente hori jarraian zehazten diren baliabideen kontura finantzatuko da. Hona hemen kapituluka laburtuta:

KAPITULUA	IZENA	ZENBATEKOA
8	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	474.248,00 €
Guztira, kreditu gehigarriaren parekoa		474.248,00 €

Erabaki honen aurka, zeinak Aguraingo Udalaren 01/2025 kreditu gehigarria behin betiko onesten baitu, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2025eko uztailaren 3a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR